

**OÑATIKO UDALA ETA GURE BAZTERRAK ELKARTEAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik, ARANTZAZU SAGARZAZU SACRISTAIN andrea, GURE BAZTERRAK (IFK G02818313) izenean aritzeko gaitasuna duena (NAN: **7443**H / Helbidea: Olabarria Auzoa 36).

Bi aldeek behar besteko lege- gaitasuna aitortzen diote elkarri hitzarmen hau izenpetzeko. Ondorengo klausulen arabera hitzarmena formalizatzea erabaki dute:

LEHENA: Hitzarmenaren xedea.

Honako hitzarmen honen helburua Oñatiko Udalaren eta Gure Bazterrak Elkartearen arteko lankidetzamarkoa ezartzea, eta "Araoztarrak liburuaren" ikerkuntza eta argitalpenerako gauzapenean diruz laguntzea da.

BIGARRENA: Bi aldeen eskumenak.

Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atalean xedatutakoaren arabera.

Gure Bazterrak Elkarte, irabazteko asmorik gabeko erakundea da, Eusko Jaurlaritzak Herri Onurako elkarte izendatua 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 Dekretua dela medio.

HIRUGARRENA: Hitzarmenaren jarraipena.

Proiektua modu egokian bideratzeko, hitzarmenaren betearazpena eta sinatzaileek harturiko konpromisuak betetzen direla ziurtatzeko, koordinazioa gauzatuko da. Bertan Kultura Saileko Batzordeburuak, edo/eta hark eskuordetzen duenak eta Kultura Zerbitzuko teknikariak izendatuko dira.

LAUGARRENA: Beste diru laguntza batzuekin bateragarritasuna.

Diru laguntza zuzen eta ez izendun honetan aurreikusitako zenbatekoa (5000€) beste diru laguntza batzuekin bateragarria izango da (xede berberako jasotako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, Batasuneko edozein administraziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik eratorriak,...) baldin eta bertan, Oñatiko Udalaren diru laguntza agertzen bada. Laguntza guztien zenbateko batura osoa aurreikusitako kostu osoaren %100 gainditzen badu, aurreikusitako ekarpena dagokion zati proportzionalera murriztuko da.

BOSGARRENA: Justifikazio txostena.

38/2003 Lege Orokorrak, bere 22. artikuluan ezartzen du (22.2.c atala), salbuespen izaerarekin, zuzenean eman ahal izango direla diru-laguntzak beti ere honako arrazoiak egiaztatzen direnean: interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo/eta humanitarioa izatea edo deialdi publikoa zailtzen duten bestelako arrazoiak.

Ikus hitzarmenari atxikitzen zaion justifikazio txostena.

SEIGARRENA: Laguntzaren zenbatekoa eta kontu Saila.

Hitzarmen honen helburua gauzatzeko, Oñatiko Udalak bost mila euro (5000€) ordainduko dizkio Gure Bazterrak Elkarteari dirulaguntza zuzen eta ez izendun gisa. Honela banatua:

2025 urteko Udal aurrekontuetan:

Diru laguntzaren gastua guztira: 5000€ (bost mila euro).

1.080.481.338.00.08.2023 (5491) partidaren, Etnografia proiektuetarako diru laguntzak, kontura eta haren lotura-mailaren arabera ordainduko dena.

Diruz laguntzen den proiektua: Araoztarrak liburua gauzatzeko ikerketa lanak gauzatu eta argitaratzea.

Onuradunaren kontura izango da jarduera bera erabat gauzatzeko behar den beste finantzazioa lortzea.

Onuradunari ezin izango zaio bermerik eskatu, ez delako ikusten hitzarmen honen ondorioz bere gain hartu dituen betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

ZAZPIGARRENA: Diru laguntza emateko prozedura.

Diru laguntza **ordainketa bi zatitan** egingo da: 5000€

Lehen zatia: 2025. urtean, akordioa onartzen den unean (%70). Guztira: 3500€

Bigarren zatia: zuriaketa aurkeztu eta onartzen den unean (%30). Guztira: 1500€

ZORTZIGARRENA: Diruz lagunduko diren gastuak eta irizpideak.

Dirulaguntza justifikatzearen arrazoia izango da, erakunde onuradunak diru publikoaren erabilera egokia egin duela egiaztatzea. Horretarako hitzarmenean ezarritako baldintzak bete direla eta lortutako emaitzak egiaztatuko dira.

Diru laguntza hau justifikatzeko balio juridikoa izango du, justifikazio-kontu erraztuak (diru laguntzaren erregelamenduko 75.artikulua). Memoria ekonomikoan (justifikazio-kontu erraztua modalitatean) gastu-sarrerren laburpen taulan jaso beharko da. Horretarako, Oñatiko web orrian eskuratu ahal izango den, gastu-sarrerren balantze orokorreko eranskina aurkeztu beharko da.(www.oñati.eus).

Bestalde, diruz lagundu ahal izango da, bakar bakarrik, liburuaren ikerketa eta argitalpenetik bertatik eratorritako gastuak; beti ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 22.2.C atalean xedatzen denarekin eta justifikazio txostenean jasotakoarekin bat etorritik gero.

Zuriketa aurkezteko epe muga: 2025eko, abendua 31, osteguna izango da.

BEDERATZIGARRENA: Onuradunaren bete beharrak Udalarekiko.

- 1.Udalari aurkezturiko eta adosturiko Arazotarrak liburu gaizatzeko konpromisua hartzea.
2. Oñatiko Udaleko logoa argitaratuko diren liburuetan agertzeko konpromesua hartzea.
3. Oñatiko Udalaren dirulaguntza jaso dela agerian utzi beharko da sortzen diren euskarrietan.
4. Elkartek liburu honen garapenean gauzatuko dituen ikerketa lanak zerbitzu publikora (Oñatiko herritarren zerbitzura) jartzeko konpromisoa adierazten du.
5. Gure Bazterrak Elkartek egitasmoa gauzatzeko Oñatiko Araotzeko auzoko auzotar, kultur eta giza eragileekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzen du.
6. Gauzatu beharreko proiektuan uneoro emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzen ahalegintzea (elkarrizketak hautatzerakoan, jasoketak egitean,...).
7. Elkartek, garaturiko liburuaren ale batzuk Oñatiko kultura Sailean utziko ditu.

8. Egitasmoaren ikusgarritasuna eta nola zabalduko den zehaztu beharko da, baita publizitatea eta informazio bideak ere.

9. Elkartea diru kontuen ikuskaritza edo auditorioa egitera behartuta balego edo eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko balio, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1 c) eta f) artikuluen arabera).

10. Administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, NISAE, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu diru laguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko. Onuradunari dagozkion honako zerbitzuak kontsultatuko ditu udalak: Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSDN-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.

HAMARGARRENA: Udal eskumena.

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, lege (Apirilaren 18ko, 781/1986 Erret Dekretu legegilearen 114.artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat batean bihurtuko dira betearazle.

HAMAIKARRENA: Hitzarmenaren indargabetzea.

Sektore Publikoaren Araubidea jasotzen duen 40/2015 Legearen 51. artikuluan xedaturiko arrazoiez gain, hitzarmen honetan jasotakoa beteko ez balitz, bietako alde batek bertan behera uzteko ahalmena izango du eta Udalak utzitako baliabideen erabilera berreskuratuko du. Hartara, Udalak aldian aldiko arakatzeak egingo ditu, hitzartutako baliabideei ematen zaien erabilera egokia den ziurtatuz.

Hitzarmen honetan aurreikusten ez diren ondorioetarako, Sektore Publikoko Araubidea jasotzen duen 40/2015 Legea eta aplikagarriak diren zuzenbide pribatuko araudiak agintzen duena beteko da.

Hitzarmena hau deuseztatzearen arrazoiak:

- Izenpetzen duten bi alderdiek hala erabakita.
- Alderdiek hartutako konpromisoak larriki ez betetzeagatik.

HAMABIGARRENA: Datu babesa.

Hitzarmenaren xedean adierazitakoaren arabera, lanak/zereginak/ikerketak/elkarrizketak egiteko, ez da beharrezkoa Oñatiko Udalarenak diren datu pertsonalak eskuratzea.

Horrela, debekatuta dago Oñatiko Udalaren jabetzakoak diren datu pertsonalak tratatzea, eskuratzea eta ikustea datu pertsonalak nahi gabe eta baimenik gabe ikusiz gero, Elkartek konpromisoa hartzen du ezagutu dezakeen informazioa sekretupean eta isilpean gordetzeko, eta arduraduna den erakundeko datuen babesaren ordezkariari gertatutakoa berehala jakinarazteko. Horiek horrela, Elkartea behartua dago datuak hirugarren pertsonari ez ezagutaraztera, transferitzera, ematera edo jakinaraztera, eta betebeharrak hori Oñatiko Udalarekin duten harreman juridikoa amaitu ondoren mantenduko da.

HAMAIRUGARRENA: Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa.

Hitzarmen honek sinatzaileen artean ondorio juridikoak ditu. Bere xedea entitatea eta Udala helburu berdinarekin elkarlanean aritzea da.

Sektore Publikoko Araubidea onartzen duen, urriaren 2ko, 40/2015 Legearen 47. artikulua ezarritako hitzarmena da, Administrazio Publikoa eta entitate pribatuaren arteko motakoa eta bere araubidea legearen VI. kapituluan xedatutakoari lotuko zaio.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta aldean artean auzigai izan daitezkeen gaietan administrazioarekiko auzi-jurisdikzioari men egiten diote.

Hitzarmen honek administrazio-izaera du eta berau interpretatu eta garatzeko, apirilaren 6ko 27/1993 Foru Dekretuaren xedapenei eta Ogasuneko eta Finantzetako Departamentuaren maiatzaren 19ko 327/1994 Foru Aginduari jarraituko zaie.

Aurreko atalean adierazitakoaz gain, Elkartek bere burua Gipuzkoako Foru Aldundiak burutuko dituen egiaztatze-ekimenen esku utziko du, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Erregimeneko Foru Arauko 105. artikuluan aurreikusitako finantza-kontrolerako neurrien esku eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legedian aurreikusitakoen esku ere.

Horren interpretazioaren eta betetzearen haritik auzitan jar daitezkeen gaiak-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren arlokoak eta eskumenekoak izango dira.

Hitzarmenaren klausulak banan-bana irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako, adierazitako lekuan eta egunean sinatzen dute hitzarmen hau

Oñatin, sinadura digitalean aurkezturiko datan,

Oñatiko Udalaren izenean
Izaro Elorza Arregui, Alkatea

Gure Bazterrak Elkartearen izenean,
Arantzazu Sagarzazu Sacristain



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Hitzarmena

CSV/EKS:

SINA4fb03a18-4061-4bd4-b931-5a1568bf55e5